

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

1958/2016 Ebazpena, urriaren 19koa, onartzen duena salgaiak eta bidaiariak errepidez garraiatzeko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) eskuratzearren 2016ko irailaren 30ean egindako proba gainditu dutenen behin betiko zerrenda

“Abenduaren 15eko 2459/2015 Ebazpenaren bidez, salgaiak eta bidaiariak errepidez garraiatzeko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) eskuratzearren 2016an egin beharreko probetarako deialdia egin eta proba horiek arautzen zituzten oinarriak argitaratu ziren.

Aipatutako ebazpenaren I. eranskinaren lehen oinarriak xedatzen du 2016an sei deialdi egingo direla, eta bosgarren deialdiko azterketa irailaren 30ean, ostiralarekin, egingo zela. Proba hori araututa zegoen bezala egin zen.

Zazpigarren oinarriak xedatzen du, ariketak kalifikatutakoan, epaimahaiak proben behin-behineko emaitzak argitaratuko dituela web orrian, eta bost egun baliodun emango dituela interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten; eta, horiek ebatzitakoan, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendariak behin betiko emaitzak onartuko dituela, ALHAOn argitaratuko den ebazpen bidez.

Behin-behineko emaitzak aurtengo urriaren 4an argitaratu ziren web orrian, eta haien aurka ez zen inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Horregatik, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 8ko 63/2012 Foru Dekretuak aitortzen dizkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) lortzeko proba gainditu dutenen behin betiko zerrenda. Proba 2016ko irailaren 30ean egin zen Arabako Lurralde Historikoan, salgaiak eta bidaiariak errepidez garraiatzeko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen agiria eskuratzeko.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek ez du agortzen administrazio bidea eta, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 112.1 eta 121. artikuluetan ezarritakoaren arabera, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari hilabeteko epean, hura jakinarazten denetik aurrera”

Gasteiz, 2016ko urriaren 19a

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

GGA LORTZEKO AZTERKETA GAINDITU DUTENEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA SALGAIK

IZENA	ABIZENAK	EMAITZA
AITOR	ALCANTARA GURTUBAY	GAI
ENEKO	GORBEA BARBARA	GAI
GAIZKA	GOTI JAUREGUI	GAI
FABRICE	KAMDEM FONING	GAI
BRUNO MANUEL	PEREIRA DE SOUSA	GAI
FAYSSAL	ZOUIN	GAI

GGA LORTZEKO AZTERKETA GAINDITU DUTENEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA BIDAIRIAK

IZENA	ABIZENAK	EMAITZA
SYED WAQAS	HAIDER SHAH	GAI